


1994ko uztailak 22

243. zenb.

PRESS



REALSATE



**Murgil
zaituz
oporretan**

LORAMENDI



KIROLAK



udako
eskaintza
berezia

KANPINDENDAK

DAKAR 170 Kotoizkoa
5 lagunentzako, PVCzko zoruz



8.900

LONAZKO KOLTSONETAK



Bikoitza
Banakakoa

3.980
1.980

Luzapena

2.750

MOTXILAK



VEGAS

4.600



SHERPA 65

12.995

ZAKUAK

Mc Kinley CANYON



5.900

Eta gainera, iglooak,
eskaladako materiala,
osagarriak...
Zatoz Loramendira eta ikusi
zeuk!!

Bizikletak bai, baino hobeto tandemak

Problematika asko. Protestak, salaketak: Maltzaga-Urbinauren aurka, AHTren (abiadura handiko trenaren) aurka, errepresioaren aurka, etxebizitzaren alde, drogodependentzien (ez drogen) aurka, herriko jaietan egitarau potenteak antolatzen, gaztetxearekin gauzak antolatzen, Cerrajera eta beste hainbat enpresen itxiera eta langileenganako espedienteen aurka eta abar oso luze bat.

Benetako arazoak, konpondu/hobetu beharrekoak, baina nor mugitzen da? Oso jende gutxi. Eta non dago gaztedia? Ez dira hauek herriaren arazoak eta asko gaz-

teekin zerikusi handiarekin? Bai horixe. Baina gazteak zati-tuta/sakabanatuta daude, oso batasun gutxi dago, kooperazio gutxi, bakoitzak berarentzat bakarrik mugitzen du ipurdia eta injustiziak bere ondoko/ingurukoak kolpatu arren, ez dira berarentzat arazo ez kezka, kolpeak bera harrapatzen ez duen bitartean.

Gugan (bakoitzak beregan) bakarrik pentsatzen dugu (du) eta bakoitzak bere aldetik gutxi borroka dezakegu; ondokoari lagundu beharko genioke, behar dugu eta, gure ohizko pasibitate-konplizitatea ikusi ezarekin gehiago ahuldu beharrean. Jendea frustatuta bizi da, ez dauka adorerik besteekin biltzeko, bere komoditate pertsonala ahaztea ez du nahi, ez du "taldearen onerako" denaren zentsua ulertzen eta indibidualismoa du besteenganako arma zorrotz eta berarenganako lokarri askaezina. Bai, sistemaren zuloan jausita, barne-barnean, gauza askotaz haserre, baina ingurukoekin kooperatu gabe harro eta krudel hauen aurrean, baina azken finean eta ondorio moduan, zure existentzia-pentsakera-frustazioa ahaztea (eta ez borrokatzea) da zure desioa eta jai-juerga-desfase-pelotazo-transformazioa da bidea, ezta? Bai eta bidai ez hain luzetxo horren ondoren berriz errepide berdinerara eta bertan oso txikia zarenez, ertzean zaude zelatan, zu bezalako txikiak zapaltzen dituztela ikusten, zure indiferentziaren ziztadaz akatzen dituzularik.

Bizikleta guztiak elkar bitez, poliki-poliki kamioi eta kotxeen azpian bukatu ala ertzean egoteagatik ordeitzen hasi eta usteltzen bukatu beharrean.

IKER BARANDIARAN



Sagu-zahar

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantza Loidi. **Kazetariak:** Ixaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Ikerne Altube (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kofi, Daniel Gokiolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoia, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS, Tirada: 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Unai Loidi.

**GATZAGAN,
ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ
jatetxea**




Memesa
79 42 22



Aldizkari honek
Arrasateko Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Euzko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
 Ferrerías, 35 ARRASATE
 Tfnoa: 77 13 78



**I
R
T
A
B
E
R
N
A**
**T
A
B
E
R
N
A**
**T
I**
 Ferrerías kalea
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 56 11

VE ECUADOR
Bidaiak
 Kontzeziño, 2
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 14 06

ASOCIACION / ELKARTEA

LIZARRA
 Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan
 ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE
 Goizeko 9etatik 1a arte
 TFNOA: 79 19 21

•••••

Edu Aranari erantzunez

Harridura puntu batekin irakurri ditut, Edorta Aranak pasa den asteko ATB-Berriak eranskinean Arrasate Telebistaren inguruan esandakoak.

Kritikak, eta medio lokal batean are gehiago, beti dira aberasgarri, baina esaten denarekin ere kontu izan behar da.

Eduk, besteak beste, ATBko programazioa standarra delako esaten du, ausardia falta beharbada?, eta produktua, formalki begira gutxienik (editaiak, kareta, publizitatea...), maila eskasekoa.

Harridura puntua aipatzen nuen, pentsatzen nuelako, hala nere irudipena, Edortak gure medioa ezagutzen zuela. Antza denez, ez da hala.

Aipatzen dituen kritikak erabat ikuspegi profesionaletik eginak daudela iruditzen zait, ATB zer den kontutan hartu barik; ATBk izan ditzakeen muga tekniko zein pertsonalak kontutan izan barik. Eta baditu, Edorta, hortan ez dudarik izan.

Are gehiago esango nuke nik, bertan lan egiten dugunon probetxuan.

ATBk dituen mugak kontutan hartuta, eskaintzen dugun maila ona dela, bai forma zein edukin aldetikoa, kontestuan eskain daitkeen onena seguruenik.

Bukatzeko, Edorta, programa erraz eta politak egin daitezkeela diozu; panazea kutsua dauka horrek, dena den, eta beti moduan, zabalik gaudela, eta beharrezko zaigula gainera, goian aipatutako muga horiek gaintzeko bidean, herritarren ideia eta aportazioak uztartzera, are gehiago, aportazio horiek programa erraz eta politetara, erakargarrietara, eramaten bagaituzte.

Ateak erabat zabalik daude, beraz.

ANDONI URZELAI

Ser-gio

Aditza. Ser edo izatea. Ez izatea. Gior-Gior, ondoen garbitzen duena. Egotea eta izatea. Egonaz ez izan eta ez egon. Itxoin, ogi-apur batzuk ditut gordeta eta (dagoeneko ia aterra ezin eta lehorrak), uso hauentzat ogitartekotik bereizi direnak. Handiena. Txikitoa. Bi izan daitezela. Zuk oso azkar edaten duzu ardoa, joder!

Berrogei durok salbatuko gaituzte. Hogeik beharbada. Pasatzen badaiz bilatu egiten nauzu. Kamarero honek badaki enroilatzen. Baina zer dabizu, zu ez zaude ondo. Zigarroa ez zait oraindik sartzen. Gero pikatuko dut urdaiazpikotik.

Berriz ere erori egin zara? Ezetz, gizona; zorua izan da, gainera etorri zaidana. ez dakit emakume honek zer pentsatzen duen.

Agur Sergio. Jolasean ari denean Sergi; alde zaharreko harri berriak ikusten ditugunean zutaz akordatzen gara.

Ezin izango dugu Tolo-salderako azken bidaiara egin, porroi bat edo hiru botatzeko. Egizu zuk gure partez, eta noizean behin botaiguzu ur apur bat zertitik behera. Esandakoa.

JOSEBA COSTANA

(*erredakzioan itzulia*)

Irailera arte!


Guk ere oporrak hartu behar ditugu. Aste honetakoa izango da azken aldizkaria. Baina irailera lehen ostiralean zure buzoian izango duzu ARRASATE PRESS.

Ondo pasau!

“PAL”
burdindegia,
brikolage
eta tresneria
 Uribarri etorbidea 3,
 Tfnoa: 79 31 99

ITSASKI
ARRANDEGIA
Arrain freskoa
eta jaki izoztuak
 Uribe Auzoa
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 98 94

Inguruko leku toki erakutsiko zenioke kanpotar bati?



Jon Andoni Axpe
Irakaslea
(32 urte)

Aramaixoko inguruak erakutsiko nizkioke. Gaua ere mendian pasako genuke, zerua izarrez beteta ikustea ederra izaten da eta.



Oihana Jimenez
Ikaslea
(19 urte)

Monterron, Santa Barbara. Urkulura ere eramango nuke eta gauetz, Arrasateko giroa zelakoa den erakutsiko nioke.



Simon Urizar
Jubilatua
(74 urte)

Egunez Monterron erakutsiko nioke eta afltzera, jatetxe txinarrera eramango nuke.



M. Luz Casatorre
Langilea
(27 urte)

Herrian Monterron eta Santa Barbara. Kostaldera ere eramango nuke, Zarautz eta Getariara.



Igor Saiz
Ikaslea
(21 urte)

Urkulu, Arantzazu eta Urbia. Arrasateko auzoak ere bai eta kotxea eduki ezkerro, kostaldea. Gauetz, berriz, Atxabaltako jaietara eramango nuke.



Arantzazu Mondragon
Ikaslea
(19 urte)

Monterron eta Santa Barbara. Oñati ere erakutsiko nioke, oso gauza politikak ditu eta.



Jabier Urrutia
Roneoko langilea
(52 urte)

Santa Barbara, Monterron. Gauetz, berriz, tabernaz taberna.



Anuska Elorza
Ikaslea
(20 urte)

Urkiola erakutsiko nioke, paraje polita da eta. Udan jaiak edonon izaten direnez, gauetz jairik jai ibiliko ginateteke.

UGARAN
jatetxea

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Iguualatorria79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko)77 03 46
77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasak900 40 05 23
79 78 44
79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55
Montterongo liburategia
 Montteron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 22
 Egunez eta gauzez: Irizar. Erguin.

Larunbata 23
 Egunez eta gauzez: Ruiz. Maala.

Igandea 24
 Egunez eta gauzez: Morales. San Andres.

Astelehena 25
 Egunez eta gauzez: Corcuera. Musakola.

Asteartea 26
 Egunez eta gauzez: Irizar. Erguin.

Asteazkena 27
 Egunez eta gauzez: Ruiz. Maala.

Osteguna 28
 Egunez eta gauzez: Morales. San Andres.

22 OSTIRALA

ZINEA
 "Dos viejos gruñones" 7etan eta 9.30etan.

MAALAKO JAIK
 8etan etxaflero jaurtiketa. 4etan ume jolasak eta txokolatada. 7etan trikitixa. 9etan afaria "Estradetan". 10.30etan "txinparta" taldearekin dantzaldia. 11etan suzko erruberak.

DANTZA FOLFLORE EMANALDIA
 "El Salvador"eko dantza taldearen dantza follore emanaldia Monterroneko parkean, gaueko 10.30etan. Sarrera: 500 pta. Eguraldi txarra egingo balu, Amaia antzokian.

23 LARUNBATA

ZINEA
 "Beethoven" 5etan eta 7.30etan.

ZINEA
 "Dos viejos gruñones" 10etan.

SASKIBALOI TALDEAREN AFARIA
 Arratsaldeko 5etan emakume-eta gizonezkoen entrenatzaileen arteko saskibalo partidua. 9etan Arrasateko saskibalo talde guztiek, entrenatzaileek eta zuzendaritzak afaria izango dute denboraldia agurtzeko.

24 IGANDEA

ZINEA
 "Beethoven" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

MAALAKO JAIK
 12etan San Frantziskon meza. 1ean jubilatuz guztientzat Plus-Ultra tabernan luntxa.

MIXEL GARIKOITZ PASTORALA
 Donaixti-Ibarren (Behe nafarroan) Mixel Garikoitz pertsonaiari buruzko pastora. Bertara joateko autobusak goizeko 8etan Garibai geltokitik irtengo dira, AEDK antolatuta

ARRISKU SOLDATA

Gipuzkoako Diputazioari langabetuak kontratazeko eskabidea luzatu dio Arrasateko Udalak. Hau dela eta Arrasateko Udalak 10 kontratazio egin ahal izango ditu, horietariko bost arrisku soldataren barruan aukeratuko dira. Arrisku soldatako laguntza jaso nahi duten arrasatearrek, uztailaren 29a baino lehen Udaletxean egin beharko dute eskaria. Laguntza ekonomikoaz gain, aholkularitza emango zaie.



MAALAKO ARRABALEKO JAIK

Ostiralean hasiko dira Maalako jaiak, egunean zehar hainbat ekintza izango ditugu eta igandean berri, Jubilatuen eguna izango da.



ARGAZKI LEHIAKETA

"Gazteak naturan" V. argazki lehiaketa antolatuta du Arrasateko Udaleko gazte zerbitzuak. Bi kategoria: 14-20 urte bitarteko gazteak eta 21-35 urte bitarteko edozein. Gaia: "gazteak naturan". Bi modalitate; zuri-beltzean eta koloretan. Lanak aurkezteko epea urriaren 14an bukatuko da. Informazio gehiago jasotzeko gazte zerbitzura jo edo 770065 zenbakira dei eginda.

25 ASTELEHENA**ZINEA**

"Beethoven" 7etan eta 9.30etan.

I BURDINOLA SARIA

Burdinola kooperatiba-elkarteak zientzi eta giza zientzi lanetarako sari baten deia egin du. Lanak Euskoker fundazio-
ra bidali beharko dira; Gordoniz 6, 6 kanpoko Dptua, 48010 Bilbo. Deialdia urriaren 31ean bukatzen da eta honen ebazpena espreski eta zuzenean jakinaraziko zaio sarituari. Epaimahai kalifikatzailearen epaia apelaezina da. Burdinola kooperatiba-elkarteak sarituriko lanak argitaratzeko eskubidea beretzat gordetzen du, inolako ordain barik.

26 ASTEARTEA**ZINEA**

"Beethoven" 7etan eta 9.30etan.

FERRERIAS KALEKO JAIK

8etan etxafleruak. 12etan txistularien kalejira. 4.30etan haur jolasak, bonba japoniarrak, zaku lasterketa, txokolatada... 7etan kaleko hildakoen aldeko meza parrokiari. 7etan ikurriña jaso, txistularien kalejira, herri poteoa, 7 eta 14 urte bitarteko neska mutikoen-tzat lasterketa. 9etan herri afaria. 11etan musika, herriko talde batek girotua. 12etan zaku lasterketa eta helduentzako jolasak.

27 ASTEAZKENA**28 OSTEGUNA****ZINEA**

"Akira" filmea Monterron parkean. Sarrera: 300 pta; gazte txartelarekin 250 pta. Eguraldi txarra egingo balu, Amaia antzokian.

**ODOL-EMATEA**

Irailaren 5ean, astelehenez, 6an asteartez eta 7an asteazkenez Arrasateko anbulategian. Ordutegia: arratsaldeko 3.30etan, 4.30etan eta 8etan.

**URIBARRIKO JAIK**

Abuztuaren 24, 25, 26 eta 27an Bartolome Deuna Uribarriko jaiak izango dira. 24 asteazkena: 10etan suzieren jaurtiketa jaien hasiera adierazteko; 11.30etan meza, 12.30etan auzoko jubilatuei luntxa, 6etan pilota partiduak, 10.30etan bertso jaialdia, 12etan "Kaixo" taldearekin dantzaldia. 25 osteguna: 10.30etan marrazki lehiaketa gaztetxoentzat, 1ean buruhaundiak, 5etan futbol partidua, 10.30etan "Hator" taldearekin dantzaldia. 26 ostirala: 11.30etan Uribarriko Herri Kross. 4.30etan mus txapelketa, 11etan "Arizgoiti" taldearekin dantzaldia, 2etan gantzontzilo eta kulero lasterketa. 27 larunbata: 2.30etan herri bazkaria, 5.30etan umeentzako jolasak, 11etan "Lotxo" taldearekin dantzaldia, 11etan Bolo txapelketa.

LORAMENDI KULTUR ELKARTEA

Aretxabaletako Loramendi kultur elkarteak dituen asmo batzuk aurrera ateratu ahal izateko, pertsona bat egun erdiz kontratatuko du. Lanpostu hori betetzeko gertu egonez gero, lehenbailen lokaletik pasa zaitez edo deitu 770970 zenbakira. Lanpostuari buruzko informazio zehatza jasotzeko eta izena emateko uztailak 25a astelehena izango duzu azken eguna.

KANPAZARKO ERROMERIA

Uztailaren 31ean San Ignazio eguna dela eta, egun osoan zehar erromeria izango da Kanpazarren.

ERAKUSKETA

Famili eta Gizarte Heziketarako zentzuan "Altzari berrikuntza" ikastaroko lanen erakusketa. Uztailaren 18tik 28ra Monterronen. Ordutegia: egunero 6etatik 8etara, larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

UDALAKO JAIK

Abuztuaren 2tik 3a bitartera. 2 asteartea: 9.30etan auzoko afaria. 3 asteazkena: 11etan meza, 12etan luntxa Udalako elkartearen, 4.30etan mus txapelketa, 5etan umeentzako erroldoi eta buruhaundiak, 6etan umeentzako jolasak eta 10etan "Kaixo" taldearekin dantzaldia.

“K-2 Chogori euskal espedizioko kideak itzuli zirenean, ongietorri-omenaldirako pankarta handi bat jarri zuten Aretxabaletan ageri-agerian, telebistaz Euskal Herri osoan ikusi ahal izan zena: ‘Zuen potruekin infernuraino’. Eta kirtenkeria dexentea iruditzen zaidan esaldi horren inguruan, hona hemen zenbait zehaztapen:

(...) ez zait iruditzen gizakiak bere balentriarik handienak barrabilez egiten dituenik, buru-argitasunez baizik. (...)

Azkenik, infernua ‘behean’ dago, gugandik oso hurbil eta hilen egoitza nahiz atsekabe guztien biltegitzat hartzen dugu; ez da ahalegin handirik behar bertara iristeko. Meritua ‘gora’ igotzeak du, bizidunon amestoki den zeru edo paradisurantz hurbiltzeak; eta, halafede, bai lanak eman ere beronen konkistak! Beraz hurrengoan...”

Iñaki Mendigurenek 94-7-15

Egunkaria

“Orain hogeit bat urte esamolde bat sortu zuen Arizmendiarietak: ‘kartara egindako jubilazioa’ deitzen zena. Hau da, ez zuen nahikoa pentsioa kalkulatu eta finkatzen zuen tramite administratiboa, lotura sozietario/komunitarioa etetea, maitasun eta solidaritatezko loturak mutxituaz. Aukerak sortu nahi zituen, bakoitzaren askatasunaren barruan, jubilatuak gizarte-bizitzako profugo edo desterratu senti ez zedin, egoera horrek ahaztura eta interesik eza ekartzen dizkio eta.

Jose Maria Ormaetxeak

lanhida

“Gazte jendeari erakargarri egiten zaio telebista bezalako medio batean lan egitea, eta etorri eta euren kolaborazioa eskaintzen digute, badakite eta ATB profesionalki promozionatzeko modu egokia dela, izan ere teknikari zein aurkezle mailan kantera sortzen ari gara, hemen lan egindako batzuk dagoeneko ETBn ari dira eta”.

Agurtzane Gainzarainek

tvlocal

Zer egin eta nora jo eraso sexualen eta bortxaketen aurrean?

Horrelako zer-bait gertatzen denean, emakume batzuk ez salatzea erabakitzen dute baina guztion onerako egokiena salatzea da. Frogatu dugunez, Gipuzkoan adibidez %10ak bakarrik salatzen du eta zifra horrek gauza asko esan nahi ditu.



Rosa Mondragon
Emakumearen berdintasunerako agentea

Orain arte, egia esan, salatzea lan astuna izan da, denuntzia behin bakarrik egin beharrean askotan egin behar izaten baitzen. Hau da, eraso jasan zuenak behin eta berriz kontatu behar izaten zuen gertatutakoa. Baina joan den astean sinatu zen akordioaz, bide hori erraztu egingo da. Hemendik aurrera erasoren bat jasan duenak nahikoa izango du behin bakarrik denuntziatzea. Emakunde, Ertzantza, Eusko Jaurjaritza eta epaileen artean sinatu den akordioaz, erakunde horiek izango dira denuntzia guztia tramitatuko dutenak. Beraz, emakume batek ospitalera joatea aukeratzen badu ondoren ospitalekoak arduratuko dira gainontzeko erakundeei kasua azaltzeaz. Helburua, emakumeari behar bezalako laguntza ematea da eta era horretan erasoak emakume gehiagok denuntziatuko dituela espero dugu.

Akordioa Gipuzkoa osorako sinatu da baina Arrasateko kasuan gizarte laguntzailearengana jotzeko aukera ere badagoela gogoratu nahiko nuke. Dakizuen bezala, orain dela gutxi horrelako kasuetara ere zuzendua dagoen babesetxea zabaldu



URONDO
elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Argiztapena
- * Instalazioak
- * Bobinaketak
- * Automatismoak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

Bizikleta Martxa

150 lagun inguru hurbildu ziren Debara, Deba errekararen berreskuratzea eskatzera. Urteroko zita honetarako deia, Aretxabaletako Amilotox, Bergarako Mendia Bizirik, Eki eta Eguzki talde ekologistek egin zuten. Bizikleta martxa goizeko 9.30etan abiatu zen Aretxabaletatik eta Arrasatera 10ak aldera iritsi ziren. Bizikletariak uste baino lehen heldu ziren Debara eta alderantziz izan beharko litzatekeen arren, arrazoi horregatik ez zen urteroko manifestazioa egin. Hala ere, ekintzan parte hartu zutenek Deban pasa zuten eguna, EAEko instituzioei erreka berreskuratzekeo plana idatz dezatela eskatzeko.



Ikurriñari omenaldia

Joan den ostegunean ikurriñak 100 urte bete zituela eta, herriko hainbat etxe eta lehiotan ikurriña jarri zen. Udaltxean ere berdina egin zen, asteleheneko gobernu batzordean erabaki zenaren arabera, udaltxeko balkoian ikurriña ipini zen. Horretaz gain, ostegunean egin zen udal plenoan omenaldia egin zitzaion ikurriñari. Omenaldian irakurri zen idatzian, ikurriña euskaldunon ikurra dela aldarrikatu zen. Idatzi horrekin eta PSE-EEkoek testuari gehitu ziotenarekin ados azaldu ziren zinegotzi guztiak. PSE-EEkoek gehitu zutenaren arabera, uztailaren 14a identitate nazionala berreskuratzekeo eguna izan beharko litzateke.

Santamainako jaiak

Ostiraletik domekararte jai giroa izan zen nagusi Santamainako auzoan. Adin guztietako jendearentzat izan ziren ekintzak. Zapatu eguerdian, Santamainako aitajaun-amandreak omenaldi-bazkarian batu

ziren. Arratsaldean, berriz, herri kirolak izan ziren: Mieltxo Saralegi harrijasotzaileak 250 kilotako harria jaso zuen. Domeka ere kirol ekintzekin hasi zuten, ezkondu eta ezkongabeen

arteko partiduarekin.

Rugbykoen jaiak

Zapatuan, Arrasate Rugby taldeak denboraldi amaierako jaiak egin zuen herriko plazan.

Arratsaldean, mus txapelketa jokatu zuten baina ekipo arazoak zirela eta, gauerako antolatuta zuten kontzertua bertan behera geratu zen.

Txatxilipurdiren zirkoa

Txatxilipurdiren udalekuetako lehen txandan parte hartu duten umeeke zirkoro giroan bukatu zituzten udalekuak. Amaierako ekintza moduan, pailazo jantzi eta zirkoa egin zuten.

JAIOTZAK

- Irati Garcia Delgado. Uztailaren 8an.
- Itziar Arrizabalaga Ruiz de Zarate. 14ean.
- Maitane Mondragon Serrano. 15ean.
- Oxel Urra Sanchez. 16an.

EZKONTZAK

- Jose Arribas Manuel & Rosa M^a Fernandez Escudero. Uztailaren 9an. Elizaz.
- Angel Fernando Izquierdo Martinez & M^a Dorleta Urbesalgo Perez. 16an. Zibilez.
- Francisco de Asis Treviño Galarraga & M^a Teresa Briongas Garcia. 16an. Zibilez.
- Carmelo Kortabarria Errasti & Irune Uribarren Sagasta. 16an. Elizaz.

HILDAKOAK

- Franziska Arabaolaza Alzelai. Uztailaren 14ean. 83 urte.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



Zabortegi berririk egin beharrean, gaur egun dauden zabortegiak aprobetxatzea da Udalaren asmoa.

Oliako zabortegia errekuperatzen ari dira

AMAT fundizioak (orain Ederlan) urtetan erabili izan ditu Oliako inguruak bere produkzio prozesuko hondakinak botatzeko. Enpresa horrek ez zuen, ordea, horretarako lizentziarik eta gainera, zabortegia erabat saturatuta zegoen. Hori ikusita, Ederlan kooperatibarekin, gaur egun paraje horren jabea denarekin, harremanetan jarri zen Udala eta sei hilabetean zaborra botatzeari utzi eta inguruaren errekuperazio plana aurkezteko eskatu zion. Ederlanek plana aurrera eramateko borondate ona azaldu zuen eta horretan ari dira orain. Momentuz zabortegia itxi dute eta zaborraren gainean lurra bota. Fase hori bukatzen dutenean, lurra prestatu, belarra erein eta zuhaitzak ere landatuko

dira, horrela errekuperaketa paisajistikoa amaituko delarik. Oliakoa da Arrasaten errekuperatzen ari den lehenengo zabortegia, baina ez da bakarra izango. Udalak gutun bana bidali zien maiatzean Arrasaten dauden bost betegarrietako titularrei, hiru hilabeteko epean errekuperaziorako plana aurkezteko eskatuz. Oraingoz, bi betegarrietako jabeek aurkeztu dute plana.

Gainera, Udaleko Gobernu Batzordeak hala erabakita, gaur egun indarrean edo errekuperazio fasean dauden betegariak erabat itxi eta berreskuratu arte ez da horretarako beste baimenik emango. Bete artean, dauden zabortegiak lur eta hondakinak botatzeko aprobetxatzea da asmoa, berririk egin barik.

Telebista seinalea

Zenbait telebista kateren seinalea jasotzeko Gesalibarko bizilagunek duten arazoak badirudi irtenbidéa izan dezakeela. Euskalnetek, telebista seinaleen gestioaz arduratzen den enpresak, reemisoreak lekuz aldatu nahi dituen aukera hori aprobetxatu nahi da Gesalibarko arazoa konpontzeko. Auzo horretan ez dira ATB eta kate pribatuak ikusten.

Lursailak inorendu

Garagartza auzoan dagoen Arteaga baserria eta bere lursailak inorendu eta enkante publikora ateratzea onartu zen osteguneko plenoan.

Bozketa horretan baserria saltzearen kontra bozkatu zuten HBko zinegotziek, beste zeregin batzuetarako erabil daitekeela uste dutelako. Baserria eta lursaila San Frantzisko Xabier ikastolarena ziren baina iaz udalarekin egin zuen hitzarmen baten ondorioz Arrasateko udalarena da orain.

LARUNBATETAN ERE BAI



CIM

HIZKUNTZAK-IDIOMAS

94 - 95 IKASTURTEA

Matrikula zabalik

INGELES

ALEMANA

FRANTSESA

AHIZKE S.COOP
Araba Etorbidea, 4 20500 ARRASATE Tfnoa: 79 03 12

AHIZKE S.COOP
Olakua, 14 20560 OÑATI Tfnoa: 71 60 00



Asfaltatze lanek izugarrizko kotxe iladak eragin dituzte aste guztian zehar.

Irailerako bukatuta izango da Maalako rotonda

Irailerako amaituko dituzte Maalako rotondan egiten ari diren obrak. Aste honetan, rotonda asfaltatzen hasi dira eta gainera, Foru Aldundiaren ekimenez Musakolatik Takolora bitarteko zeharbide guztian mikroaglomeratua bota dute. Lan horien eraginez, trafikoa erretentzio handiak izan dira puntu horretan. Abuztuan zehar, berriz, lorategiko lanak egin eta seinalizazioa eta argiak jarriko dituzte.

Rotonda hori egiteko 26 milioi gastatu dira eta Construcciones Arrasate enpresa arduratu da lan horiek egiteaz. Martxoan

inguruan hasi zuten obra eta uste baino lehen bukatuko dute, aste honetan egin dituzten lanak abuztuan egingo zirela espero zen eta.

Rotonda hori egitearen helburua, Arrasateko trafikoko puntu beltzetako bat konpontzea izan da. Horregatik, lau besotako glorieta egin da eta era horretan trafikoa arindu egingo dela espero da. Obra horrek, gainera, aldaketak ere eragin ditu, Aramaio erreka, adibidez, estali egin behar izan da eta inguruan zeuden zuhaitz batzuk kendu egin behar izan dira.

Ospital berrirako lurzorua

Osteguneko plenoan, ospital aurrean dagoen aparkalekua Osakidetza ematea erabaki zen. Zehazki 1.456 m² eman dira pezeta baten truke, orain dagoen ospitalaren parean beste eraikin bat egiteko. Erabaki horretan, HBko zinegotziek kontra bozkatu zuten, parean eraikin berria egitea "partxea" jartzea dela esanez; euren iritziz daukagun eskualde ospitalea ez da behar bezalakoa.

Saskibaloia

Ostegunean zen jakitekoa, Arrasate Saskibaloi talderi lehen mailara igotzeko baimena emango zioten ala ez. Atzokoan bilera egin zuen Madrilen Estatuko Saskibaloi Federazioak eta bertan erabakia hartu zen. Arrasateko taldea, paper guztiak behar bezala aurkeztu zituen talde bakarretarikoa izan zen, horregatik igotzeko aukera handiak izan ditu. Hala ere, azken erabakia Federazioak zuen.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



“Amelutarrak”, Gorosabel familiakoak, uztailean batzen hasi ziren duela 25 urte. Joan zen domekan egin zituen 25 urte batzen. Liernin elkartu ziren guztiak eta etxeko zaharrenari, 85 urteko Juan Jose Gorosabeli, papiro batean bertso bat oparitu zioten. Elkartu ziren 35 familiarekoek, plaka bat ere eskeini zieten, Juan Jose Gorosabel eta Rosario Azurmendi senar-emazteei omendu nahiean.

AEKko 6. urratseko ikasle- en bisita izan dugu aste honetan. Ikasleek Telebis- tan egiten den lana ikuste- ko aukera izan zuten eta

ARRASATE PRESS gertutik ezagutzeko ere bai. Arre- taz entzun zituzten azal- penak eta galderak egite- ko aukera ere izan zuten.




Ibai-Artek antolatu duen kanpoko loren apainke- tako irabazlea Anttoni Uribarren izan da, eta 35.000 pta jasoko ditu sari moduan. Mertxe Tro- jaolaren lorak geratu dira bigarren: 25.000 pta Mertxerentzat. Hirugarren sariaz Arantxa Vito- ria jabetu da.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara
Tfnoa: 79 26 99

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

IZEN PROPIOAK

● **Camila Jauregik**, 15 urteko atxalbarrak, eski akuatikoko Espainako txapelketan 3. postua lortu du. Txapelketa Castel de Fels-en jokatu zen eta goi mailako eskiatzaileekin hartu zuen parte Camilak. Camilak 2. R.E.M egin du Almenen.

● **Ibai-Arte** antolatu duen kanpoko loren apainketako sariak banatu dira: lehen saria **Anttoni Uribarren**ek jaso du. 2.

Mertxe Trojaolak 3.

Arantxa Vitoriak.

Kontsolazio sariak,

Concepcion Galdos,

Garbiñe Etxagibel,

Consuelo Larreina,

Maxima Arregi, **Pilar**

Uribetxebarria, **Begoña**

Aranburu eta **Itziar**

Etxebarriak jaso dituzte.

Urtero ematen duten sari

berezia **Josefina**

Uriarte rentzat izan da.



Deba Garaiko zikloturisten taldea urtero egin ohi duen bezala uztailako lehen asteburuan Pirineo aldera joan zen bizikleta gainean zenbait kilometro egiteko asmoz. Gure txirindulari ausartek, Tourrekoek bezalaxe, Tourmaleta igo zuten eta Col de Hautacan eta Luz Ardidenen ere egon ziren. Guztira 244 kilometro egin zituzten. Bizikletan ibili eta turismoa egiteko ere aprobetxatu zuten bidaia, besteak

beste, Arco de Gavarnie eta Lourdes bisitatu zituzten eta. 12 hauek egin zuten bidaia.:

Goian: **Marcelino Santos** eta **Ramon Goñi**. Erdian: **Fernando Larrañaga**, **Javier Castillo**, **Parra**, **Jose Garcia**, **Ramon Ormaetxea**, **Fernando Gimenez**, **Jose Cubino** eta **Jose Luis Ugidos**. Behean: **Jose Migel Landa** eta **Emilio Saiz**.

“Corazón de Encina” Extremeñoen taldeko dantza taldea eta korua Cadalsan egon da lau egunetan zehar. Arrasateetik Cáceres aldera 78 pertsona joan dira, bi autobus bete beteta. Caldalsan musika eta dantza emanaldia eskeini dute Arrasateko “Corazón de Encina”koek.



NAROKI

Urrezko bitxiak

ERDIKO KALE, 23
ARRASATE

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

ARRASATE
HOTELA





Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

Irailetik aurrera...



Arrasateko

OSASUN GIDA





- ALBAITARI
- DENTISTA
- MASAILARI
- PEDAGOGO
- PSIKIATRA
- OFTALMOLOGO
- GINEKOLOGO
- ...



BAZARA

ANALISI KLINIKOAK, MEDIKUNTZA
 OROKORRA, HORTZ KLINIKA EDO
 BARNE MEDIKUNTZAKO ZERBITZUAK
 ESKAINTZEN BADITUZU...



Informa zaitez **ARKOKO**
 publizitate sailean
 Tfnoa: 77 08 15



Esther Telleria, elikaduran aditua

“Ez dago mirarizko dietarik”

Arrasatearra da eta EHUn Medikuntza eta Zirugian lizentziatuzen. Jakako kandidatura olinpikoko mediku ofizial izan berri da eta ETBko Subijanaren sukaldaritzaren programan kolaboratzaile lana egiten du. Gaur egun, elikadura kontsulta bat du Arrasaten. Gomen-dio batzuk eskatu dizkiogu.

— Gaur egun, orokorrean, jendeak zaintzen du bere elikadura?

— Bai. Informe baten arabera, euskaldunen %50ak elikadura aipatzen du osasunean garrantzia duen lehen aspektu bezala; kirola portzentaia honetatik oso urrun dago eta %40ak gutxigorabehera, elikadura zaintzen duela esaten du. Datu hauek ez dute preskripzio medikuekin inolako zerikusirik, hau da, elikadura euren aldetik zaintzen duen jendearen datuak dira hauek.

— “Gorputzaren Kulturaz” asko hitzegiten da. Zer iritzi duzu?

— Gizarte honetan, “gorputzaren kultura” deritzon fenomeno hori lehen maila batean dago, harreman profesional nahiz pertsonaletarako erabiltzen da. Garrantzi gehiegi eman izan zaio eta jendeak, sekula

izango ez duen gorputza eduki nahi du. Fenomeno honek sekulako arazo psikologikoak ekarri ditu, “anorexia nerbiosoa”, kasu: Adolezenteengan izaten du eraginik handietan eta oso gutxitan sendatzen da. Gai-xotasun horrek oso hilkortasun maila handia du, %30ekoa. Makina bat ama etorri zait kontsultara euren alaben elikadura kontrola dezadan: argaltzeko jateari guztiz uzten dioten neskek izaten dira hauek. Neska hauen koadriletan, konpetentzia antzeko bat egoten da, “ea nor geratzen den argalen edo ea fraka hauek nire lagunari bezain ondo geratzen zaizkidan”. Egoerak dominatu egiten ditu.

— Gero eta anorexiko gehiago dago, beraz?

— Bai, gero eta emakumezko nahiz gizonezko anorexiko gehiago dago. Ez naiz Arrasate mailan hitzegiten ari, nahiz eta herrian ere kasuak badauden. Jarra desbiderapen bat dago: Fisikoki ondo eta osasuntsu egoteko, beharrezkoa da ondo jatea baina ez da batera beharrezkoa halakoetara heltzea.

— Udarako, zer gomen-datuko zenioke jendeari? Zein izango litzateke dieta orekatua?

— Dieta ez da udan bakarrik zaindu behar, urte



osoan zehar baizik. Norbaitek argaldu egin nahi badu, normalean jaten duenaren erdia jan behar du. Lehen platera, bigarrena, ogi zati bat, postrea eta fruta edo esnekia izaten da jan beharrezkoa. Bestalde, koipe kopurua neurtzea oso garrantzitsua da: mantimendu dieta batean, 3 edo 4 goilarakada olio har daitezke eta argaltze dietan 2. olio kopurua neurtuz eta elikadura ikuspuntu batetik balore energetikorik ez duten jaki guzti horiek, industri goxoak, alkohola edo estekiak e.a. ebitatuz, jendea argaldu egiten da. Soluzioa ez da “mirarizko dietak” edo “udako dietak” egitea; dieta horiekin lortzen den gauza bakarra ura galtzea da eta berriz normal jateari ekitean, loditu egiten da.

— Haragia jatea beharrezkoa dela esaten dute adituek baina bestalde, begeta-

rianoek nutriente guztiak hartzen dituztela esaten dute. Ez dira teoria kontra-jariak?

— Denetarik jan behar da, eta baita haragia ere, edo arraultzak edota arraina. Jende askok haragia ebitatu eta arraina jaten du. Zergatik? Proteinei dago-kionez, arrainak haragiak besteko balioa duelako. Bi jakien arteko desberdintasun bakarra koipe kopuruan dago.

— Euskal Herriko gastronomia zer moduzkoa da nutrizio aldetik?

— Egia esan, nahiko elikadura orekatua da. Oliba-koipea, arraina, barazkiak eta lekariak jaten ditugu. Txarrena zera da, kanpoko ohiturak kopiatzen ari garela: gaur egungo umeek nahiko gaizki jaten dute, ia ia ez dute gosaltzen, normalean ikastetxean bazkaltzen dute eta inork ez ditu kontrolatzen. Zorionez, ikastetxeetako elikadura kontu hau mugitzen hasi da Subijana.

● “Gero eta ‘anorexia nerbiosoa’ kasu gehiago dago”

Itxaro Zubillaga

Gizakiaren lagunik onena

Gizakiaren lagunik onena dela entzutean badakigu txakurrei buruz ari garela. Nonahi ikus dezakegun animalia horrek, uste duguna baino askoz ere gauza gehiago egin dezake. Txakurrak kalean ikusten eta etxean edukitzen ohituta gaude. Askorentzat lagun bat besterik ez da txakurra, pasiatzera atera eta kasurik egiten ez badu, oihu edo zartada bat emanda nahikoa dela uste dugu. Baina, txakurra, pertsona bezala, hezi egin behar da, gauzak ondo egiten erakutsi eta, era berean, zer ez duen egin behar ere erakutsi. Txakur guztiak, arraza guztietakoak hezi daitezke eta hezitzeko orduan oso disziplina desberdinekin egin dezakegu topo.



Gabor, Pantora eta Jasper aurkitu genituen ariketak egiten; Jasper da irudikoa.

TXAKURRAK HEZITZEA DUTE AFIZIO

Arrasaten badago talde bat txakurrak oso gustokoa dituen: euren afizioa txakurrak hezitzea da. Talde horretako partaideek, Jon Iñaki Lasa, Raul Ortuzar eta Juan Etxebarriak, txakurrak nahi eta nahiez hezi egin behar direla diote, euren iritziz "txakur guztiek euren funtzioa dute eta funtzio horri ahalik eta etekin haundiena ateratzeko, txakurra erosi edo hartzean zertarako nahi dugun jakin behar dugu".

Hezitzeko era asko dago: batzuek ehizarako hezitzen dute; heziketa era hori, egingo zaigu, behar bada, arruntena; beste batzuk erasorako edo kirol konpetizioetan parte hartzeko. Baina, hala ere, badaude

txakurrak etxean izateko eta pasiatzera ateratzeko hezitzen dituztenak. Txakur bat hezitzeko, animalia kondizio onetan edukitzea komeni da, taldeko partaideek esan digutenez, osasuntsu izatea bai fisikoki eta baita psikikoki ere. Osasuntsu izateko ahalik eta janari orekatuena ematea komeni da "guk pentsua ematen diegu, erosoena delako batetik, eta konpentsatuena bestetik eta noizean behin barazki eta frutekin nahasten dugu". Psikikoki osasuntsu edukitzeko txakurrak kirola egin behar du. "Txakurra zertarako den ikusi behar da eta horretarako bideratutako funtzioa eman behar zaio: txakur guztiak zeozertarako jaio dira, genetikoki betebeharrak du txakurrak, ardi txakurra bada eta ardien

artean ez badabil ez da guztiz zorientsu izango". Bestalde, sarri sarri albatari-arenera eramatea ere komeni da, urtean zehar hartu behar dituen txertoak kontrolatzeko.

Txakur bati oinarrizko gauzak erakusteko ez du arraza berezi batekoa izan behar, baina gure helburua goi konpetizioetan murgiltzea bada, arraza batzuk besteak baino aukera gehiago ematen dute, pastor belga, alemana, rottwaillera edo beaucerona esaterako. "Txakur bati, gainera, oso gauza desberdinak egiten erakutsi diezaiokegu, rastretatik hasi, obedentziak, objektuak bilatzea, atakeak... eta disziplinatza RIN frantsesa hartzen badugu, hemen hesiak, saltoak azaltzen zaizkigu. Dena dela, salba-

Txakurra, pertsona bezala, hezi egin behar da, gauzak ondo egiten erakutsi egin behar zaio".

mentuan edo agilitian ere, hesiak eta saltoak sartzen dira". Era asko, beraz, helburu konkretu bat lortzeko, hau da, aldamenean hezitako txakur bat izateko. Baina txakur ideal hori ez da goizetik gauera lortzen den gauza, lan asko egin behar da eta lan horrek bere denbora behar du. Esaterako, txakur bati oinarritzko gauzak erakusteko, jeikitzen, jartzen eta abar. 2 hilabete nahiko lirakeke, baina txapelketa edo erasorako prestatzeko denbora gehiago behar da. Bestalde, hezitzeko adin onena zein den ez dago oso garbi, izan ere, batzuri helduak direnean hezitzea gustatzen zaie baina, beste batzuk gazte gaztetatik hasten dira. Adin kontua, duzun planteamenduen arabera doa. Dena dela, txikia denean hezitzen hasiz gero, txakurra norberreganatzeko aukera gehiago izaten da, txikitan ikasitakoa egiten du gero.

HEZITZEKO ERAK

Gaur egun hezitzeko bi era ezagutzen dira: era zibila eta deportiboa. "Era deportiboan txakur orekatua bilatzen da, txakurrak zenbait froga pasatzen ditu baina gero ez dauka inongo arazorik konbibentziarako. Era zibila, berriz, oso desberdina da, lekuren bat gorde dezan hezitzen da txakurra, haginka egiten erakusten zaio, nolabait esateko,

arriskutsua izaten erakusten zaio. Baina, ondo hezita badago ez du zertan arriskutsua izan behar".

Bide batez, esan beharra dago txakur bat hezitzea ez dela garestia, erabili behar den materialak diru kopuru bat balio du, baina luzerako denez, ez du poltsikoak horrenbeste igartzen.

HEZI NAHI BAINA TOKIRIK EZ

Esandakoak esan, txakurrak hezitzea afiziotzat duen talde honek badu arazo kezagarri bat aurrean. Izan ere, txakurrari erakutsi behar zaion guztia erakusteko zelai laua izatea beharrezkoa da eta bailada alda-

patsuan bizi garenez, oraindik ez dute leku aproposik aurkitu. "Orain arte Larriño eta Urkulu aldean ibili izan gara, beharrezko materialez kotxea bete eta inguru horietara joaten gara; baina uda aldean eguraldi ona dela eta jende asko egoten denez, askotan ezin izaten dugu zenbait froga egin, jendea txakurrak ikustean beldurtu egiten delako, horregatik leku egoki bat bilatzen ari gara. Txakurrekin lan egiteko zelai laua nahi dugu baina orainarte ahalegin haundiak egin ditugun arren, ez dugu zorterik izan eta ez Arrasaten, ez inguruan, ez dugu ezer topatu".



Eraso bat hastera doa Jasper.

• Uda aldean eta, batez ere, opor garaian txakur asko ikusten da kaleetan jaberik gabe. Jendeak hilabete horietan txakurrekin zer egin ez dakienez, abandonatu egiten ditu. Txakurrak hezitzea afizio duen talde honen iritziz, "Txakurrak abandonatzeko ez dago eskubiderik eta arazo hori kontrolatzeko bidea, Chip-a ezartzea izan daiteke. Chip-a derrigorrezkoa izango da 95ko urtariletik aurrera eta neurri haundi batean, arazo hauek gerta ez daitezen lagunduko du". Gainera euren ustez "ez luke identifikazio gabeko txakurrik egon behar. Pertsonok identifikatuta gauden bezala edo kotxe guztiak matrikula duten bezala, txakurrak ere identifikatuta

egon behar du, erresponsabilitateak eskatu ahal izateko".

• Honez gain, legez txakur guztiak lotuta joan behar dute kalean, "Solte eramatea debekatuta dago legez eta oso erreza da hau, hortz zorrotzak baditu bozalarekin joan behar du. Dena dela, jende gutxik kontrolatzen du bere txakurra".

• Kontutan hartzeko beste puntu bat txertoei dagokiena dugu, "Txakurkuma denean, 2 bider 4 txerto mota ematen zaizkio, gero amorrurenzat beste txerto bat, baina txertoa ematea bezain garrantzitsua arkakozaok kentzea da. Baku-natu aurretik egitea aholkatzen da".



aur egun gure arazo nagusiena txakurrak hezitzeko lekurik ez da."



* M^a LUISA PEREZ

Zelan zaindu ilea udan?

tzeko ilea estaltzea eta produktu onak ematea izango litzateke erremedirik onena.

- Ez du garrantzirik tintea noiz ematen den, berdin da oporretara joan aurretik eman edo 15 aurretik; ondorioak berdinak izango dira.

- Puntak ondo zaindu behar ditugu udan, oso hauskorak direnez, kalte gehien izaten dutenak dira eta.

- Zein kolore, argia edo iluna eman, ez du axola, biak berdin higatzen dira eta. Higaketa ez da tintearen araberakoa izaten, ile motaren araberakoa baizik.

Ile finak hauskorragoak direnez, sendoak baino lehen higatzen dira, beraz, ile finak ondo zaindu behar ditugu.

- Noizean behin maskarilek ematea gomendatzen da. Maskarilek ilea elikatu, baretu eta berregokitu egiten dutenez. Egunero egiten ez baditugu ere, uda aldean astean behin ematea oso ona litzateke.

- Oso ile sikua dutenentzat badago beste erremediorik: Koko-olioa oso ona da ileari bizitasuna emateko.

- Opor ostean ilea egogerra txarrean badugu, moztea

gomendatzen da, ileari behar duen osasuna emateko.

- Kontutan eduki behar dugu eguzkirako produktuak tenperatura altuetara oso sentikorak izaten direla, beraz, itzalpean gordetzea komeni da.

- Itsasoko urak ileari iodoa, potasioa eta kaltzioa eskeintzen dio eta gatzak kalte handia egiten dio eta hauskorak bihurtzen ditu ileak; uretara joateko estaltzea komeniko litzateke.

- Ilea ondo izateko bitaminetan aberatsa den elikadura gomendatzen da, fruta eta barazkiak esaterako.

* **ESLU ILEAPAINDEGIKOA**

- Eguzkiak ileari kalte egin ez diezaion, filtro solarra duten produktuak erabiltzea komeni da, produktu babesleak.

- Ilean kolorea emanda baduzu, txanpu babestzaileak emateaz gain, eguzkia hartzean ilea estaltzea gomendatzen da.

- Itsasoko urak, duen gatzagatik, asko sikatzen du ilea, puntak zabaldu egiten dira eta brilloa galduz doa, beraz, txanpu onak, protekzioa dutenak erabili behar dira.

- Igerilekuko uraren ondorioak berdintsuak direnez, urarekin erresintenteak diren txanpuak erabiltzen baditugu, ilea hobeto edukitzea lortuko dugu.

- Kolorea emanda duten ileek, kalte handia izaten dute eguzkiaz, ilea higatu egiten da, beraz, hori ebita-



GOZOTEGIA

AKELARRE

Abuztuan ere zabalik

Goizez 9etatik - 2etara

Artisautzako Pastelgintza

Zarugalde, 54 ☎ 77 00 71 ARRASATE




Elena

Bizkaia Etorbidea, 1 etxebaia Tfnoa: 77 14 24

Irailerako kirol ekintzak

AUKEAK prestatu ditu, dagoeneko, irailerako kirol ekintzak eta 94-95 denboraldiari begira hobetu eta zabaldu egin nahi izan du eskaintza hori. Horretarako bertako abonatuak eta abonatu ez direnentzat zenbait ikastaro antolatu ditu. Helburua Arrasate osoko biztanlegoaren kirol beharrak asetzea da. Antolatu dituen ikastaroen artean, mantentze soinketa dago. Ikastaroa 20 eta 60 urte bitarteko arrasatearrei eskeiniko zaie, goizean eta arratsaldean egiteko aukera egongo da eta asteko egun guztietan emango dute ikastaroa; hasiera batean Musakolako



Kirola egiteko aukera ezin hobea izango dugu irailetik aurrera ere.

kiroldegian izango den arren, beharra ikusi ezkerro Iturriekoan ematen hasiko direla jakinarazi digute. Adinekoentzat ere izango da gimnasia. Astearte eta

ostiraletan goizean izango dira klaseak eta izena ematen dutenek Musakolako kiroldegian zein Iturriekoan egiteko aukera izango dute. Aerobic ikastaroa ere

abian jarriko dute irailetik aurrera, eta tenisa praktikatzeke aukera ere izango dugu. Beste ikastaro bat igeriketako izango da eta no-bedade bezala giharketa edo muskulazio ikastaroa aipagarri. Ikastaro horretan aktibitate fisiko desberdinak egingo dira, giharrak forman jartzeko pesak eta abar, baina bertan parte hartzeko 18 urte izan beharko dira gutxienez. Esandakoaz gain, soinketa bereziko ikastaroa ere izango da: Atzegi elkartearekin elkarlanean, gutxitu psikiko talde batzuei soinketa klaseak emango zaie. Irailetik aurrera kirola nagusi, beraz.

Futbito txapelketa

Arrakastatsua oso izan zen IV. San Bartolome futbito txapelketa. 24 ordu iraun zuen txapelketan talde ugari hartu zuten parte. Finalerdietara lau talde heldu ziren: Nuevo taberna, Aterpe, Katretxep eta Errota-gain. Neurketak jokatu zirenean Aterpek eta Katretxep lortu zuten iristeia finalera. Beraz, 3. eta 4. postuak Nuevo taberna eta Errota-gainen artean egon ziren. Azkenean penaltietara jo behar eta zorte hobea Errota-gainek izan zenez, bera sailkatu zen 3. tokian. 1. eta 2. postuak erabakitzeke neurketa ona bezain bizia izan zen eta bere joku ona erakutsiz, 6-0 nagusitu zen Aterpe taldea eta bera dugu txapelduna.




Iturrieko kiroldegian futbito izan zen nagusi zapatuan eta domekan.



"Aizpun Bila" talde irabazleko partaideak.

"Aizpun bila" nagusi

Aramaioko saskibalo txapelketa bukatu da dagoeneko. Bi multzotan 5 talde ibili dira jo eta sua bi hilabete zehar eta azkenean "Aizpun Bila" Arrasateko taldea izan da txapeldun. Talde honek "Seventy tristes" en kontra jokatu zuen finala eta 61-60 irabazi.



Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behe Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

Mertxe Arana, margolaria 'Gouache'aren erregina

Atxabaltarra da baina Arrasaten bizi da. 51 urte ditu eta pintura da bere bizitzaren ardatza. Denbora gutxi barru Zarautzen erakutsiko ditu bere koadroak baina 1980tik banakako erakusketak nahiz taldekakoak egin izan ditu. Bere kurrikuluma 10 sarik osatua dago.



— Zerk eraman zintuen lanbide honetara?

— Uf! Aspaldi, duela 25 bat urte, Fagorren lanean nebilenean, pintura ikastaroak etabar antolatzen zituzten langileontzat. Nik horietako batean izena eman nuen eta irakasle bat etorri zitzaigun klaseak ematera. Aspalditik nuen afizioa baina orduan hasi nintzen serio. Gero, Fagorretik Madrilera bidali ninduten eta han, Arte Ederretako fakultatean nire kontu ikasten hasi nintzen: "Artes y Oficios" atera nuen eta "Peña" izeneko Madrileko akademian jarraitu nituen nire pintura ikasketak.

— Espero zenuen noiz-bait lanbide bihurtuko zenik?

— Egia esan, bai. Gainera, denbora guztia pinturara dedikatzen ez baduzu, sekula ez zaituzte serio hartzen. Nire lagun guztiak pintoreak dira eta

garai hartan, oraindik Fagorren lanean nebilenean, kezka hori nuen buruan, lanean zaudenean garrantzi handiagoa ematen diozula lanari benetan gustoko duzun horri baino; beraz, pinturarekiko sentitzen nuena afizio moduan ulertzen zuten nire lagunek.

— Zer sentitu zenuen zure lehen koadroa saltzean?

— Madrilen ikasten nengoela saldu nuen eta egia esan, "artista" sentitu nintzen, oso pozgarria izan zen

— Zer moduz saltzen dituzu zure margoak Arrasaten?

— Arrasaten ez dago oraindik koadroak erosteko ohitura handirik; jendeak koadroetan baino,

kortinetan eta altzarietan pentsatzen du gehiago eta laminak eta antzekoak jartzen ditu, dena dela, hori ere hasi da aldatzen. Gasteizen gehiago saltzen dut, hirietan beste mentalitate bat dago eta.

— Zein teknika erabiltzen duzu?

— Duela 4 urte hotelarekin hasi nintzenean beste teknika bat erabiltzen hasi nintzen, "gouache"aren teknika hain zuzen, lehen oleoa erabiltzen nuen eta. Oleoak margotzeko leku asko behar izaten da eta hotelera bizi izatera etorri ginenean, nire amaren etxean, Aretxabaletan egon ginen denbora batean. Ni oso ganorabakoa naizenez, hau da, gauzak nahiko desordenaturik izaten

ditudanez, nire amaren etxeko altzariak etabar ez zikintzeko beste teknika hori erabiltzen hasi nintzen: ez da oleoa bezain zikina eta ez da horrenbeste leku behar margotzeko. Akua-relaren antzekoa da, zertxobait dentsuagoa. Gainera, teknika hori erabiltzen dudanetik, koadro gehiago margotzen dut: lehen, oleoa erabiltzen nuenean, urtean 6 bat koadro besterik ez nituen margotzen eta orain, 30 bat margotuko ditut.

— Oslon, Noruegan, erakusketa bat egin zenuen. Zer dela eta haraino?

— Hango "Espainiako etxean" egin nuen. Enbajadan lan egiten duen lagun bat daukat eta berak erraztu zigun lan guztia, bestela hemendik kanpo arte-lanak ateratzea oso zaila izaten da. Arrakasta handia izan zuen erakusketak.

— Zein koadro erakutsiko dituzu Zarautzen?


— Nire azken lanak izango dira, figuren eta paisaien koadroak gehienbat. Duela gutxi Getarian egon nintzen eta portuan emakumeak sareak josten ikusi nituenean, koadro bat margotu nuen: hori ere erakutsiko dut.

.....
"Nere lehen koadroa saldu nuenean, 'artista' sentitu nintzen"



San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.



PEÑAKOBA

Zarugalde, 46
Tfnoa: 79 29 93
ARRASATE

Lizaur Arkitektoa
Tfnoa: 78 25 60
ONATI



LABURRAK

Eskolaren 50 urteak liburu batean bilduta

Eskola Politeknikoa sor-tu zenetik aurtun 50 urte bete direla eta, Eskolaren historia guztia jasotzen duen liburu sendo eta mamitsua argitaratu berri da.

Lan honen egileak, Juan Leibar Guridi, eskolako irakasle ohia eta Joxemi Azkarate Intxaurren, egun eskolako irakasle dena izan dira.

Liburua 25 ataletan banatuta dago: Lehenengo ataletan Jose Maria Arizmendiartaren bizitza kontatzen da; bigarrenean Eskolaren lehen urteak nola izan ziren azaltzen da eta besteak beste, "Franco a Mondragón", "Ikerlan", "Alecop" eta beste zenbait izenbururekin, hainbat sail gehiago agertzen dira. Euskadiko Kutzaren laguntzaz Eskola Politeknikoak argitaratu du liburua. Gazte-eraz idatzita dago eta 288 orrialde ditu.



Salvadoreñoak nonahi ikus daitezke; musika jotzen, nahiz dantzan.

El Salvadorreko Ballet Nazionala: "Ikuskizun-jaia"

Dagoeneko urteroko ohitura bihurtu den honi jarraipena emateko, El Salvadorreko Ballet Nazionala etorriko da gurera gaur. Monterrongo parkean gauaren freskotasunarekin batera, lurralde hartako dantzak gertu gertutik ezagutzeko eta gozatzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen diren guztiak.

Aurreko urteetan Perú eta Mexikoko dantza folklorikoko konpainia nazionalak izan ditugu bisitari besteak beste eta Monterrongo anfiteatroa beteta egon izan da ia beti.

EL SALVADORREKO BALLE NAZIONALA

El Salvadorreko kultura herrikoa hedatzea du helburu. Talde hau osatzen duten lagunak, musikoak, koreografoak, etnologoak eta historialariak dira; pertsona guzti hauek, euren lurraldeko sustrai sakonenak berreskuratu eta ezagutzeko, harreman estua dute El Salvadorreko indigenekin eta euren lana berreskurapen eta ikerketetan datza batipat. Horrela, aspaldiko dantzak berreraiki eta publikoari erakusten dizkiote.

Ostiral honetan eskainiko duten espek-

takulua estatu osotik egindako bidaia da, sumendien, Pancimalco, Izalco, Cacaopera eta Cuiznahuat hirietako irudiak erakutsiz. El Salvadorreko historiaren zati bat edo beste jasotzen dute aipatutako hiri hauek.

Konpainia honek egiten dituen dantzetan, birginei egiten zaizkien adorazioak nahiz kotoiaren ohizko bilketa erreprezentatzen dira, baita aurretik aipatutako historiagile eta etnologoien esker berreskuratutako makina bat dantza indigena ere.

Euren dantzetan erabiltzen dituzten jantzien koloreak, musikaren indarra eta dantzarien alaitasuna dela eta, konpainiako arduradunek espektakulua jai alai bihurtzen dela diote eta era berean, zaila izango dela hura ikustera hurbiltzen denak sekula ahaztea.

Monterron eta bertara hurbiltzen den jendea jai giroan murgilduko dira ostiral honetan, baldin eta aurreko urtean gertatu bezala, soinu-ekipoa izorratzen ez bada.

Sarrerak 500 ptatan salduko dira; Gazte Txartelaz, 300 ptatan. Dena dela, ikuskizun honek ez omen du preziorik eta zaila izango da Monterronetik norbaitek pozik ez irtetea.

beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Txitxinpe

Berezitasunak:

Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABAETA

LABURRAK

Eskolaren 50
urteak liburu
bataz berritu

Escola Politikin 50 urteak beteak dira. 1904an sortu zen eta 1954an bete zituen 50. urteak. Batez beste, 500 ikasle inguru izan ditu. 1954an, 1904ko ikasleekin batera, 1954ko ikasleekin batera, 1954ko ikasleekin batera...



1954an kalistroetan.

L

a Merced ikastetxea San Frantziskon, Ospitale zaharrean zegoeneko erretratu da hau. Neska gazte hauek bertako ikasleak ziren eta kalistroetan atera zuten erretratu. 1954an ateratakoa da, hamalau urte inguru

izango zituzten orduan.

Goitik eta ezkerretik hasita, **Esther Bidaburu, Maribel Zubillaga, Arantza Nafarrate** eta **Maria Rosa Agirreurreta.**

Maria Dolores Jaure-


gi, Pilar Ubago, Maribel Sanz eta Arantza Garitano.

Jesusi Etxebarria, Izaskun Markaide, Ana Mari Elizondo, Arantza Barrutia eta Tere Otxandiano.

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atekak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABAETA

TTUKUN

Fotokopiak Enkuadernazioak Koloretan fotokopiak Planoen erreprodukzioa Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE Tfnoa: 79 46 62



ZURE OPELAK AIRE GIROTUA DOHAINIK DOHAINIK

Freska zaitzen!

Udako freskagarria prestatzen dizu Opelek.
Zure Corsa, Astra edo Vectra berrian Aire girotu ekologikoa
(edo deskontu baliokidea) oparitzen dizu gutxienez.
Opel Injineritza Alemaniarraren oparia duzu.
Freska zaitetz!



Hilabete honetarako promozio baliagarria.



OPEL

Z A I N G A U Z K A Z U

**10^o
URTEURRENA**

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)
Erakusketa **ARRASATE**n: Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86
Zerbitzu Ofiziala **ARETXABALETAN**

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

OPEL BANATZAILE OFIZIALAK, ESPERIENTZIAZ ONENAK.

*“Heriotza ez da
oinazea, oinaze guztien
amaiera baino”*

SALUSTIO



Nola zihoan jantzita Patxi?

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10			11				
12		13			14		
15				16		17	
	18					19	
20				21			

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Banatzearen ekin-tza. 9. Gaixotasun. 10. Erbioa. 11. Jauzi. 12. Zorrik gabe geratu. 14. Max, idazle espainola. 15. Arteria handiena. 17. Lehen aldiko ZEN, orain aldian. 18. Leun bihurtu. 20. Zeregin, behar. 21. Gipuzkoan, 628m.ko mendia.

Bertikalak 1. Bee eginez. 2. Jose Manuel, bertso jartzailea. 3. Neu. 4. Emakumea zahartu. 5. Komando Autonomo Antikapitalistak. 6. Duero ibaiaren adarra. 7. Holidun. 8. (Ald.) Abonatu aditzaren infinitiboa. 13. Trenbidean ibiltzen da. 16. Emakume izena. 19. ADRAko kontsonanteak.

Aries Oporrak ez dira deskantsatze-ko bakarrik; horrek loditu egingo zaitu.

Taurus Erabakiak hartzea asko kostako zaizu; hala ere, ziur nago bidē zuzenena aukeratu duzula.

Gemini Hobe da bat eskuan edukitzea ehun hegari baino.

Cancer Aspertuta zaudela? Orain duzu liburuak baztertuz gozatzeko aukera!

Leo Nahiz eta lehengoak ez lortu, jarraitu saiatzen. Noizbait gauzatuko dira zure helburuak.

Virgo Horrenbeste denbora telebista aurrean pasatuz gero, “txotxolotuta” bukatuko duzu.

Libra Astebukaera honetan ikus dezakezu San Juanetan zure bihotz erdiaz jabetu zen pertsona maitakor hura.

Scorpio Sentitzen dut, baina aurrez lanik ez egitearen ondorioak orain...

Sagitaris Begizulo horiek pixka bat disimulatzeko badakizu zer egin: parranda gutxiago!

Capricorn Zure buruarengan gehiegizko konfidantza izateak ez dizu onik ekarriko.

Aquarius Auto istripu bat izateko arriskua duzula uste dut.

Piscis Gaurkoan izarrek gauza ona besterik ez dakarte zuretzat.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

· AINHOA ZULUETAREN GOMENDIOA ·



Oporretarako plan merkea proposatu nahi digu Ainhoak. Berak urte guztian egiten duen bezala, edo urtean behin gutxienez kirola egin nahi duenarentzat, Pirineoak gomendatuko lituzke Ainhoak. "Uretako kirolak egin nahi izanez gero Huesca aldean aukera handia dago, eta bide batez mendiko bizikleta ere eraman daiteke, oinez ibili nahi ez duenarentzat". Euskal Herriko kostaldean txoko maite bat ere gomendatu nahi du: "Bermeo oso leku polita da eta hondartzarik ez duenez, ez da jende larregirik ibiltzen". Hara hor, urrutira joan beharrik barik ondo pasatzeko aukera.

· KOMIKIA ·



Leire Mariartu.

· PROGRAMAZIOA ·



Programazioa oporretan doa!

Ez dugu merezi? Urte osoan zehar egunero egunero izan gaituzu pantailan eta sekula ez dizugu hutsegín. Gure pantailak, kamarek eta kableak atsedean barik egin dute lan eta gehiegi berotu dira. Hilebeteko deskantsua emango diegu; hori dela eta, datorren astelehenetik aurrera ez gaituzu ohizko kanalean aurkituko baina irailean ideia eta programa berriekin bueltatuko gara. Ezin agur esan aurrez urte osoan zehar gure ikusle fidela izan zaren horri eskerrak eman gabe, eta era berean, irailean gure kanalaren jarraitzaile izango zarela espero dugu. Besterik ez, "ATBtarron" aldetik, ondo pasau oporretan!



Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

· SOLUZIOAK ·

Horizontalak: 1. Banaketa. 9. Eritasun. 10. Er. 11. Salto. 12. Kito. 14. Eub. 15. Aorta. 17. Da. 18. Leundu. 20. Lan. 21. Arno.
Bertikalak: 1. Beeka. 2. Arriola. 3. Ni. 4. Atsotu. 5. KAA. 6. Esla. 7. Tutudun. 8. Abona. 13. Tren. 16. Ana. 19. Aa
Jeroglifkoa:
Dotore.

Etxebizitzak

- **Donostian etxebizitza** alokatzen dut abuztuan. Amara inguruan. merke. Tfnoak: 71 40 02 / 71 50 87.
- **Neska batek** bakarkako logela alokatuko luke pisu konpartitua edo pisu merkea uztailerako. Tfnoa: 94-410 28 97.
- **4 laguntzat pisu bat** nahi nuke. Eskola Politeknikotik gertu. Tfnoa: 86 18 58. Iban.
- **Leioan pisua osatzeko** 2 pertsona behar dira, logela konpartitzeko prest. (Bus geltokiaren ondoan). Merke. Tfnoak: (94) 447 55 40 - (943) 79 47 16. Kaitin.
- **Arrasaten ikasle pisu** batean gela bat behar dut. Dei egin 51 91 21 tfnora.
- **Apartmentu bat alokatzen da** Torreveijan. Hondartza ondoan. Tfnoa: 71 63 19.
- **Pisu bat alokatu nahi nuke.** Etxe bat alokatu nahi badidazu edo lekuren bat baduzu, deitu (94) 625 04 60 tfnora.
- **Erdialdean pisu bat salgai.** Berria da. Tfnoa: 79 42 13.
- **Ezcarain pisu bat alokatzen da** irailan. Tfnoa: 79 31 56.
- **Kurtsoan zehar, Donostian** (Gross-en) hiru neska behar dira pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 30 00. Lierni.
- **Pisua salgai** San Josepe auzoko 8.ean. Tfnoa: 79 51 48. 9etatik 10etara.
- **2 oheko logela** alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- **Pisu edo lokal** txikia behar dugu alokatzeko. Merke. Tfnoa: (945) 27 98 68. M^a Luisa.
- **Altamiran** elkarren ondoko 2 garaje saldu edo alokatzen dira. Tfnoa: 77 03 22.

Lana

- **Ingelesezko klaseak** emango nituzke abuztuan eta irailan 8.mailara arte. Tfnoa: 79 11 54.
- **Ingelesezko klaseak** emango nituzke. Tfnoa: 79 15 62. Nagore.
- **REM eko 8. mailako klaseak** behar dira uztaila eta abuztuan. Tfnoa: 79 18 58. (deitu Betatik 9etara).
- **Marrazki diedriko-ko klaseak** emango dizkidan norbait behar dut. Ordainduko dut. Tfnoa: 79 08 37.
- **Neska euskalduna** eta esperientziaduna behar dugu etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko. Tfnoa: 79 55 28.
- **Informatikako 2. mailako ikasleak** OHOk klase partikularrak emango lituzke uztailan. Tfnoa: 79 34 58.
- **Lizentziatua** latin, lengua, euskera edo OHOk klaseak emateko prest. Abuztu eta irailan arratsaldetan. Tfnoa: 79 11 99. Itziar. Dei egin 12.30etatik 2ak arte.
- **Emakume bat behar da** Arrasaten haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: (945) 28 84 05.
- **Injinerutzako ikaslea** klaseak emateko prest. Arloak: matematikak, marrazkia eta fisika. Tfnoa: 79 16 19.
- **Emakume euskalduna** umeak zaindu edo etxea garbitzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- **Klase partikularrak** ematen dira uztaila eta abuztuan. OHO, BBB eta UBI (gai guztiak). Tfnoak: 79 46 75-79 23 36.
- **Filosofian lizentziatu** EGAduna behar da. Titulazioa: Teologia eta pedagogia erlijiosoak edo antzekoak. Interesatuak aurkeztu kurrikuluma San Viator Ikastolara.

Salerosketak

- **Narrazio kazadora beltz** bat (kreamaileradun horietakoa) salgai. Berri-berria dago. 15.000 pta. Tfnoa: 79 81 44. Manu.
- **Salgai:** LOWREY teklatura, PHILIPS telebista 20 pulgadakoa. Oso merke. Gaez deitu 79 82 47 tfnora.
- **Karro denda** salgai. 6 plazatak. Egoera onean dago. Tfnoa: 79 65 70.
- **Idazmakina elektriko** eta memoriaduna salgai. Tfnoa: 79 47 14.
- **R.9 baten** asientoetarako fundak erosiko nituzke. Tfnoa: 77 04 21.
- **Lasterketa bizikleta salgai.** Kuadroa "MENDIZ" eta "LOOK" Pedal automatikoekin. Prezioa: 40.000 pta. Tfnoa: 79 25 15.
- **Gente famatuaren argazki** originalak saltzen ditut: Julen Guerrero, Alkiza, Sergio Dalma, Alejandro Sanz, Amistades, Duncan... e.a. Idatz ezazu eta eskatu zerrenda. Sartu gutunazalean 18 ptako 4 seilu. Helbidea: Igor Galo. Avda. Zarauz 13-3.. 20009 Donostia. Tfnoa: (943) 2106 40.
- **YAMAHA FZR 600.** Merke. Tfnoa: 79 97 48.
- **YAMAHA gitarra** eta gitarra gordetzekoak salgai. Prezio ona. Tfnoa: 11 13 79. Iñaki. 8etatik 2etara.

Denetarik

- **Abuztuaren 1ean edo 2an** Edinburgora noa kotxez eta hil bereko azken egunetan bueltatuko naiz. Edinburgoruntz joan nahi baduzu, nirekin etor zaitezke. Erdibana ordainduko dugu eta merke-merke aterako zaizu. Tfnoa: 79 69 66. Joe.
- **Urrezko pultsera** galdu da erdialdean. Tfnoa: 79 86 33.

Aste Gazte

Bekak

- "Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak" 1994-95 ikasturtean unibertsitate mailako eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko, izaera orokorreko beketarako deia egiten du. Eman daitezkeen laguntzak: alojamentuak, garraioak, materiala... Epea: urriak 14.
- "Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak" 1994-95 ikasturterako 200 lankidetzako bekaren deialdia egiten du. Epea: irailak 30.
- 1995-96 ikasturtea, Sui- zian ikasketa artistikoak betetzeko bekak. Lizentziatuei nahiz karrerako azken urtean dauden ikasleei zuzenduak.

Frantsesa edo alemana menperatzea ezinbestekoa da. Epea: irailak 15.

Unibertsitaterako autobusak

- Donostiara eta Bilbora, egunero joan etortzeko autobus zerbitzua antolatzeko asmoa du "Aixola" ikasleen elkarteak. Goizez nahiz arratsalde, ordu-tegi ezberdinak. Interesatuok Gazte Bulegoan eman dezaketzue izena, irailaren 23a baino lehen.

Oporraldiak

- Kirol abentura egonaldia. Abuztuan, 19-29 urte bitartekoentzat. Aizgorrin, Belagoako haranean eta Rie-

zun zenbait plaza libre. Izene-matea, lehenbait lehen.

- Trekking, Sierra de Tramuntanatik zehar. Egunak, uztailaren 25etik 31ra eta abuztuaren 8tik 14ra.

Auzolandegiak

- Oraindik zenbait plaza libre dituzu Mallorcarako abuztuan. Adin eta ekintza ezberdinak.

Arrisku soldata

- Arrasateko Udalak, 1994 Arrisku Soldata Programarako deialdia egin du. Enpresa ideia bat eduki eta bere negozioa abian jartzeko asmoa dutenei zuzendua. Negozioaren bidegarritasuna aztertzeko laguntza teknikoak zein ekonomikoak eskeintzen da. Epea: uztailak 29.

"Bohemiak zaharkitu egiten zaitu oso. Eta pintore gazteek, torero gazteek legez, gehiago zaintzen dituzte euren buruak".

**BONIFACIO ALONSO
PINTOREA.
"El Mundo"n**



**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**



FEMME

Boutique



*Emakumeentzako prêt-à-porter-a
Festetarako soineko esklusiboak*

AUKERA BEREZIAK MARITXURAKO

Bruno Villarreal, 4 (Gorbea kalearen perpendikularra) GASTEIZ
Tfnoa: (945) 24 85 04

POSTAL LEHIAKETA



ARKO Arrasate Komunikabideak

Azoka plaza, 1

20500 ARRASATE

Oporretan kanpora zoazela? Etxean geratzeko asmoa duzula?

*Zauden lekuan zaudela, idatziguzu postal bat. Denetan alai, bitxi eta originalena bidaltzen digunak **2 lagunentzako afaria** irabaziko du. **Agudo ibili!!***

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

*Jaten gozatzeko
duzunez,
goza ezazu
prestatzen ere.*

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE
Tfnoa: 79 99 42

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g
ARRASATE
Tfnoa: 79 00 43

FAGOR 